





XXII. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA OHOREZKO AIPAMENA



1919-1936
Argia egin zenekoa



- 1 Damaso Intza (1986)
- 2 Zeruko Argiaren lehen zenbakia (1919)
- 3 Argiaren lehen zenbakia (1921)

Euskararen eta Jainkoaren zerbitzura

Euskal letren loraldi betean sortu ziren Zeruko Argia hilabetekaria eta Argia astekaria, 1920. urtearen bueltan. Nahiko desberdinak izanagatik, bidaide, gogaide eta lankide izan ziren Argiaren arbasoak, euskararen mesedean.

Ezer ez denez hutsetik sortzen, izaki bizidun gisa Argiak ere baditu gurasoak, Zeruko Argia eta Argia. Sekula erabat elkartu gabe, urrutiko ernalketa halako baten bitartez, haiek ahalbidetu zuten mendeurrenerako bidean den euskal aldizkaririk urtetsuenaren garapena. Lehenak izena eta izaera eman zizkion bolada luze batez eta, behar izan zen uneetan, garai haietan lurtar arruntek behar zuten babes zerutiarra. Bigarrenak, berriz, sekulako herentzia utzi zion: kazetaritza modernoaren geneak zein, desagertu eta urte askora, behin betiko izena.


Familia zabalarena egin zuen testuinguru jakin baten seme, edo alaba, dira hiru urteko eta ehunen bat kilometroko aldearekin sortu ziren Zeruko Argia (1919, Iruñea) eta Argia (1921, Donostia). Euskara hasia zen ordurako bidea egiten hedabideetan. Iparraldean, Hegoaldean eta Ameriketarako baziren aldizkari erlijiosoa,

kulturalak, nekazaritzaren ingurukoak..., baina bi-biok bereziak izan ziren oso.

Javier Díaz Noci EHuko irakaslearen ustez "euskal letren, sormeneko literaturan zein kazetaritzan, urrezko garaia" ekarri zuten XX. mendeko 20ko eta 30eko hamarkaden atarian, 1918-1919 urteetan Eusko Ikaskuntzaren sorrerak eta, haren eskutik, Euskaltzaindiarenak, egituratu egin zuen nolabait euskalgintza, euskararen aldeko jarduerak oro indarberrituz. "Urte haietan gutxi gora behera 70 izenburu berri agertzen dira", dio Díaz Nocik aldizkariak *Liburuak, aldizkariak eta irakurleak XX. mendeko Euskal Herrian* artikuluan. Horien artean esanguratsuenetakoa izatera heldu ziren euskara argitu nahi izan zuten hilabetekari iruindarra eta astekari donostiarra; bakoitza bere estiloan, bidaide, gogaide eta lankide.

Kaputxino euskaltzaleak
Sabino Aranaren "Gu, Euzkadirentzat eta Euzkadi Jaungoikoarentzat" esanari harrera beroa egin zioten Euskal Herriko hainbat ordena erlijiosotan. Fedea eta abertzaletasuna uztartzeko orduan bereziki kartsuak izan ziren kaputxinoak, eta erasorik gogorrenak ere haietako zenbaitek jasan zituzten, maiz ordenakideak salatuta, *movimiento bizkaitarrista*-ra bildu eta abertzaletasunaren eta euskaltzaleatasunaren propaganda egiteagatik. Giro horretan, 1911 urteaz geroztik 5.000 harpidedun izatera heldu zen Irugarren Prantziskotarra aldizkaria kaleratzen zuten Iruñeko kaputxinoek, aita Buenabentura Oierregikoa eta aita Damaso Intzakoaren ahaleginari esker. "Euskal abesti ta guzti" argitu zuen Damaso Intzak mendea betetzear zela hil zen urte berean, 1986an, Argian egin zioten elkarrizketa batean. 1919.ean, euskararen aldeko uhinak eramanda edo, beste urrats bat egitea erabaki eta Zeruko Argia hilabetekaria sortu zuten.





3
Euskaldunak
Moskorak?
Izaskun O. M.
Cap (1921)

4
Ta teatroak eta
zineak ere bai
(1924)

5
Bamuko orrialde
baten goiburua
(1927)

Urtea gora urtea behera,
euskal letren urrezko garaia
ekarri zuen hamarkadan
sortu ziren bi aldizkariak

Zeruko Argia ez bezala,
informazio orokorreko
argitalpena izan zen Argia,
kazetaritza modernoaren
ezaugarrietara asko
hurbildu zena

» Sorreratik zeukan argi Euskaltzain-
diak euskarak aurrera egingo bazuen
ahozkoa ez ezik idatzizkoa ere izan
behar zuela, hiltunekin batera
irakurleak eta idazleak behar zituela,
eta horretarako ezinbestekoa zela
euskarazko hedabideak sustatzea.
Diruz lagundu zituen horrenbestez
eta, prentsa estimu handitan zeukan
seinale, euskal aldizkarietako
zuzendariak euskaltzain izendatu
zituen, Damaso Intzakoia barne.
Helburuetan Akademiarekin bat
eginik, Zeruko Argiak ondo ikusi
zuen, hainbat zalantzaren ondotik,
Euskaltzaindia euskararen batasune-
rako bidean egiten hasi zen
ahalegina, sabindar petoak ez bezala.
Izan ere, edukien aldetik Jaungoikoa
gorestera eta euskaldun fededunen
fedea sendotzera emandako
aldizkaria bi nagusiren zerbitzari zen:
Jainkoarena eta euskararena.

Kazetari sena
1921eko apirilaren 24an kaleratu zen
Donostian Argia astekariaren
aurreneko zenbakia. Igande hartan
hasitako abentura hamabost urte eta
hiru hilabetera amaitu zen, 1936ko
uztailaren 19an. Francoren matxi-
nadaren biharamunean itzali zen
betiko Argia, 797. zenbakira iritsita
eta, itxura guztien arabera, ezustean,
azalean bertan eskatzen baitziren
1937ko egutegirako kolaborazioak:
"Ipuiak, antzerki laburrak, errietako
edestiak eta oiturak..."

Lurrera begira sortu zen Argia,
Donostiako euskaltzale talde zabal
baten eskutik. Javier Díaz Nocik Jesus
Karrera eta Bitor Garitaonaindia
jesuitak, Ander Artzeluz apaiza eta
Ambrosio Zatarain laikoak aipatzen
ditu, baina beste askoren ekarpenak
izan zituen Argiak, sorreran zein
eguneroko martxan. Honakoa irakur
daiteke aurreneko zenbakiko lehen
zutabea: "Orain arteñoko

euskerazko lan ederak, irabazi duten
toki garaiean begoz; gure lana
beragokoa da, luraren axalean ibili
nai giñake, oraindik ortxen daude
ta euskaldunen abarka ta manta-
rak". Argi utzi zuen beraz zertara
zeturten, noren bila zihoan. Eta argi
utzi zuen, halaber, Jainkoarentzat
zuela "lenbiziko agur estitsuen".
"Apezpiku jaunaren bedeinkapenaz
ornituta gatoz. Beronen baimena
belaunikaturik artu dugu", idatzi
zuen azalean, Elurmendi ezizenaz,
Ramon Inzagarai apaiz eta idazle
donostiarrak. Zalantzak uxatze-
ko, ondoan du Leopoldo Gasteizko
gotzainak bidalitako gutuna.

Zeruko Argia ez bezala, informazio
orokorreko argitalpena izan zen Argia,
kazetaritza modernoaren ezauga-
rietara asko hurbildu zena. "Eliz-
gayek" bazuten tarterik 1936an
hamabost zentimotan saltzen zen
aldizkarian, baina ez ziren bereziki
nabarmenagoak

ziren, esate baterako, nekazaritzaren
inguruko kontuak edo, osatu zuten
berriemaile sare bikainari esker,
herrietako berriak. Kirola, politika,
kultura, nazioarteko berriak, eskelak,
iragarkiak, oharrak, argibide
praktikoak... Kazetaritza eredu
berritzailea irratira ere eraman eta
euskara hutsezko egunkariarekin
amets egin zuen proiektuak irakur-
leen interes orokorrak asebetetzea
zuen xede, ez bakarrik haien arimak
gidatzea. Jainkoa ahaztu gabe, baina
euskararen eta euskaldunen beharrek
lehenetsiz burutu zuen Argiak
hamabost urteko ibilbide oparoa.
Gerra amaitu ostean, ez zuten bideari
berriro ekiteko aukerarik izan.



Tunel luzearen amaieran, **argia**

Luze jo zuen gerrak eten zuen sokara berriz lotzea. Oso luze. Euskal prentsaren suspertzea ez zen urte kontua izan, hamarkada kontua baizik. Eta, ia berrogei urte lehenago gertatutakoaren ildotik, erlijio katolikoa izan zen atzera azkenean bere kabuzko bidea hartu zuen proiektuaren estalki eta babesa.

Euskarazko hedabideen historian barrena abiatzeko gidari egokia den Javier Díaz Nocik '50ko hamarkadako euskal aldizkariak eta beren eragina' artikuluan dioenez, "gerra ondorengo kazetaritzari buruzko historia ez da bakarrik hondamendiko kronika bat", baina ez dago horretatik urrun, batez ere Francoren menpeko Hego Euskal Herrian, euskarari dagokionez asko luzatu baitzen gerraosteko errepresioa. "Si eres español, habla español" gogoratzen zien irakurleei 1937ko maiatzean, azalean, Donostiako 'Unidad' egunkariak. Baldintza baino areago agindu zen hark biltzen du bost hitzetan erregimenak euskarari utzi zion tokia.

50eko hamarkadan hasi zen gizartea beldurrak eragindako lozorrotik itzartzen. Kanpo eta barne aldaketan ondorioz, frankismoari hasi zitzaizkion irekitzen zirrikituren batzuk eta, euskarari dagokionez, elizgizon euskaltzaleek baliatu zituzten lehenik. Haien eskutik etorri ziren suspertze ahularen lehen zantzuak, baita komunikabideen alorrean ere. 40ko hamarkadako azken urteetan, handik urte batzuetara erabat bizkaitartuko zen 'Anaitasuna' sortu zuten Tolosan frantziskotarrek, 1982 urtera arteko bizimodu gorabeheratsua izan zuen aldizkaria, erreferentziakoa euskarazko prentsaren historian. 1951ekoa da,

berri, bizirik jarraitzen duen 'Karmel' Larreako karmeldarrena... Loralditxo hartan Zeruko Argiak ere egin zuen berpizteko saioa 1954.ean -4.000 harpidedun zituen 1956. urtean, Díaz Nociren datuen arabera-, 1919.ko ekimenaren bultzatzaile nagusi izandako Buenaventura Oieregiren zuzendaritzapean. 1959.etik aurrera, Bonifazio Beizamakoa zuzendari izendatzearekin batera, beste gai batzuetara irekitzen hasi zen Zeruko Argia eta, pentsatzekoa denez, hurrengo urteetan beti zelatan izango zuen zentsurarekin egin zuen topo. Zeruko Argia ez zen erabat egonkorta, baina bazetozen bidean gauza berriak, eta 'Jakin' -en sorrerarekin amaitu zen hamarkadan hasi zen berregiten, modu oso apalean izan bazen ere, euskarazko hedabideen sarea.

Zeruko Argiaren berpiztea
Zeruko Argia 1963an berpiztu zen behin betiko, astekari bihurtuta. Ekainaren 30ean Aita Santu hautatutako Paulo VI.aren argazkiari eskaini zion Zeruko Argiak aldi berriko lehen zenbakiko azala, aita kaputxinoek argitaratzen zuten aldizkariaren ardatza erlijioa zela erakutsi nahirik edo... Pisu handia zuten, bai, erlijio kontuek, baina Argia zenak utzitako herentzia ez zen maiztasunera mugatu, edukien trataera periodistiko ere zabaldu baitzen, apurka-apurka informazio orokorrak gero eta toki gehiago hartu zuela. Zeruko Argia



- 1 Zeruko Argia (1960)
- 2 Zeruko Argia (1963)
- 3 Zeruko Argia (1975)

Argiako gaueko zuzendariaren, Xabier Letonaren, hitzok izan daitezke, nire ustez, gure garaiko Zeruko Argia asterokoaren definiziorik egiazkoena. Izan ere, duela 43 urte -1967an- Zeruko Argia ko erredakziora biltzeko deia jaso nuenean, informazio orokorraren aldeko apustu garbia egiten ari zen aldizkaria, euskal prentsarentzat oinarri-oinarrikoak gertatuko ziren lehen urratsak ematen alegia.

Legeak, ezinbestean, hartaraxe behartuta, kazetari tituludun bat behar zuen aldizkariaren jabe ziren Aita Kaputxinoek, gainerako baimen-paperguztiak euren esku zituzten eta. Garai hartako bi euskarri nagusiak, hala ere, Agustin Ezeiza fraidea eta Nemessio Etxaniz apaiza izan ziren. Haien esanetara, urtebete eman nuen nik erredaktore lanetan eta, esan bezala, neu nintzenez eskura zegoen euskal kazetari titulodun bakarra, azkenean neuri eskatu zidaten Zeruko Argia

asterokoaren zuzendaritza har nezan. Pariseko 68ko Maiatza puri-puri genuen garai hartan.

Inguruan nituen zenbait ikasle jator hasiak ziren politika eta gizarte gaiak jorratzen. Hantxe ziren Rikardo Arregi zena, Mari Karmen Garmendia, Begonia Arregi, Amaia Lasa eta Xabier Lete, asterokoari aire berri bat ekarri zioten idazle gazteak.

Hala ere, denon artean ematen hasi ginen urrats haiek, lehen urrats batzuk baino ez ziren Zeruko Argia informazio orokorreko aldizkari bihurtu arteko bide luzean. Hizkuntza bera ez ezik, euskararen gizarte-egoera izan daiteke bide luze horren adibide eta erakusgarrietako bat. Egoera zail hartan, babes handia izan zen guretzat Euskaltzaindiak 1968an Arantzazun egindako bilkura nagusia. Lan eta arazo bihurriak sortu zituzten ortografiaren gaiak eta, bereziki, benetako lurrikara baten erdian harrapatu gintuen h hizkiaren auziak Zeruko Argia egiten

genuen idazleok. Ni neuk ere ez neukan argi h hizkiarekin nola jokatu eta gogoan dut Manuel Lekuona euskaltzainburuarengana nola joan nintzen aholku eske. Haren erantzuna, berriz, ezin argiagoko gertatu zitzaidan: "H-a berea du euskarak". Horrelaxe hasi ginen aldizkari barruan hren aldeko apustua irabazten, urrats horrek zenbait idazle gungandik urruntzea eragin bazuen ere.

Hortik aurrera, gero eta idazle heldu ikasiagoak biltzearekin, profesionaltasunaren biderei ekin geniola pentsa daiteke, gaiei dagokienez, aldizkaria atalez atal lantzen jarraitu ahal izateko. 1970ko urrian kaleratu genuen 400. alea eta hortxe topa daitezke euskal kulturaren hain ezagunak diren Juan San Martin, Martin Ugalde, Andu Lertxundi, "Amatiño", Mikel Atxaga, Gurutz Ansola, Joxe Artola, Joxe Azurmendi, Xalbador Garmendia, Edorta Kortadi, "Joxe Alkiza", Gorka Knörr, Mikel Ugalde eta abar.

Idazle horietako batzuekin sortu genuen erredakzio-talde moduko bat eta astero biltzen ginen, kafetxo baten inguruan, hurrengo aleko gaiak zehaztu eta lantzeko. Bere txikian, lan handia, nik esan behar banu. Baina norentzat idatzi? Hori zen gure kezka nagusia, harik eta erabaki genuen arte:

"Aldizkari zabala egin nahi dugu, euskaldun guztiak irakurtzeko, sines-tun eta sinesgabe, ezkertiar eta eskuindar, aurrerakoi eta atzerakoi, baserritar eta kaletar, jakitun eta ezjakin, zahar eta gazte, hemengo eta mugaz handikako. (...) Bagara zerbaitetan bat: euskaldunak, euskaldun menperatuak, minduak, erasoak, urrutiratuak.

Batzen gaituzten lokarriei eutsi nahi genieke. Batzen gaituen sua indartu."

Horrela aldarrikatu genituen gure asmoak, Zeruko Argiaren asmoak, aipaturiko 1970ko urrian. Zimenduak, jakina, ez dira ikusten baina zimendurik gabe, gu ez gara inor.



Euskarazko kazetaritza modernoari zimenduak jartzen
MIREN JONE AZURZA

Aldi berrian, betiko desagertua zen Argiaren maiztasuna eta haren zenbait ezaugarri bere egin zituen Zeruko Argiak

Euskal kazetaritzaren urte izendatutako 1976.ean gauzatu ziren aldaketa ikusgarrienak

ez zen haatik fenomeno isolatua izan. Beste horrenbeste gertatu zitzaion bizpahiru urte lehenago Arantzazuko frantziskotarrek argitaratzen zuten 'Goiz-Argi' aldizkariari, "baserritarrena ez ezik, euskaldun guzieren errebista" izan nahi zuenari.

Aurreneko urteetan, kaputxinoek Donostiako Okendo kalean daukaten eraikinean egiten zen Zeruko Argia nekez har zitekeen kazetaritza-produktutzat baina, mundua bera aldatu zuen hamarkada trumoiatsuak aurrera egin ahala, laster hasiko ziren gauzak aldatzen.

Itzulirik gabeko bidea



Orrialde hauetantxe azaltzen diren zutabegileek ondo baino hobeto islatzen dute, protagonista izan zirenen ikuspegitik, zer izan zen Zeruko Argia 70eko hamarkadan: bide gorabeheratsu, zirrargarri eta geldigaitzean, itzulirik gabeko aldebidean sartuta zegoen proiektua. Zentsurari izkin ematen laioak, Franco bizi zen artean ahopean kontatu behar izan zituzten kontatu nahi zituztenak askotan, ilunantzean. Euskararen batasuna zela eta euskaldunen artean sortu ziren liskarrek ere izan zuten eraginik Zeruko Argiaren eguneroko martxan. Hala ere, inbidia emateko moduko hedapena zeukan: 10.000 harpidedun 1974. urtean, Idoia Estornes Zubizarretak Auñamendi entziklopedian eskainitako datuaren arabera. 7.000 zituen 'Anaitasuna'-k Bizkaian eta 4.000 'Herria'-k Iparraldean.

Diktadorea hil zenean, bizkortu egin zen aldaketen abiada. Euskal kazetaritzaren urte izendatutako 1976.ean gauzatu ziren ikusgarrienak: magazin formatua hartu zuen astekariak; kolorea eraman zuen azalera, eta ez zuen Aita Santuaren argazkirik hautatu estreinaldirako, Lemoizko zentral nuklearraren eraikitze lan polemikoen irudia baizik; munduari bira eman zioten Amparo Arangoa ORT-ko militante torturatuaren argazkiek... Garai haiek bertatik bertara ezagutu zituen Elixabete Garmendia kazetariak honela deskribatu zuen orain urte batzuk 70eko

hamarkadako azken urteetako giroa: "Zurrunbilozko urteak ziren haiek, ezer baldin baziren, eta Zerukokook kamikaze hutsak ginen". Zeruko Argian gelditu zirenak, alegia, urte hartan bertan sortutako 'Deia' eta 'Egin' egunkariak hozkada galanta eman baitzioten erredakzioari.

Kamikaze espirituz egin zuten, idatziz zein iruditan -ezinbestekoa Antton Olariagaren eta beste hainbat sortzaile grafikoren ekarpena azpimarratzea-, trantsizioaren lehen urteen kronika. Urte haietako zenbakietan aurki daiteke, izenez izen, oraindik ere euskal kultura neurri handi batean elikatzen duen energia. Argia.com-en eskuragarri dagoen Elixabete Garmendiaren 'Zerukotik Argiara' artikulua eta, Susaren eskutik, sarean oso-osorik berreskura daitekeen 'Baietz astea gaizki bukatu' saila mila hitz baino egokiagoak dira garai hartako Zeruko Argia zeintzuk eta zein espiriturekin egiten zuten ikusteko.

Gero eta nekezago uztartzen ziren kaputxinoen ikuspegia eta erredakzio hartan egosten zena; diru aldetik ere egoera ez zen erraza...1980 urtean, 60 urte bete berritan, kaputxinoek Zeruko Argiak orduan zituen bederatz langileek osatu zuten kooperatibaren esku utzi zuten argitalpena. Argia izena hartuta, eskualdaketa hartan aurtan 30 urte betetzen dituen aldizkari berria sortu zen.



4
Zeruko Argia (1978)
5
Zeruko Argia (1976)
6
Zeruko Argia (1976)



Musu Truk
MIKEL UGALDE

Begirada bat eman diezaigun gure iraganari eta 60ko hamarkadan koka gaitzen. Diktadura frankista agintean, imigrazioaren eraginez hazkunde demografikoa gizartean, eraldaketa nabarmena kulturaren eta pentsaeraren, ikastolak sendotzen nonahi, euskararen batasun auzia bazterretan... Hamarkada erabakigarria nolanahi. Zeruko Argiarentzat ere esanguratsuak izan ziren urte haiek.

Herriko jaietan ale berezirako anuntzioak biltzeaz gain, berri-maileen sarea zaintzea, gozatzea, animatzea, zabaltzea zen nire eginbide nagusia. Mirestekoa zen baldintza kaskar haietan berri emaitzen militantzia eta lana. Eta guztia musu truk.

Nahiz eta emakume batzuk ere bazeuden, gehienbat gizonezkoek osatzen zuten berriemaileen sarea. Adin guztietakoak. Hauek ziren herri bakoitzean aldizkariaren mezulariak

eta eragileak. Harpidedunak ere ugariagoak izan ohi ziren herriko berriak argitaratzen zirenekoetan.

Zeruko Argiak irakurleak behar zituen erdaraz eskolatutako herritarren artean. "Ezkontzak, bataioak, hiletak, familietako ospakizunak aipatzen ditut eta horrek bere eragina du orriaren salmentan" zioen berriemaile batek sarritan. Baziren, aldi berean, kronika 'normalagoak' bidaltzen zituztenak.

Euskararen batasunaren eginbideak ere harrotu zituen hautsak; nahiz eta herriko kroniketan malgutasunez jokatzeko saiatu ginen, hainbati 'h'aren erabilerak ez zion batere onik egiten. Ortografiaren haratago, Euskal Herriari berari buruzko iritziak zeuden jokoan. Hala ere, iritziak iritzi, oso euskaltzaleak ziren berriemaileak. Zeruko Argiaren kiko izan zuten leialtasuna benetan eskertzekoa da.

Haserreak gorabehera, baziren

gauzak umorez gozatzen zituztenak. Behin batean Goizuetatik Sebeinok bidali zigun kronika. Amaieran ondoko ohar hau zekarren: "Nik ez dakit nun ipini bear diren eta ondorengo auetatik bear direnak artu eta zuek jarri: hhhhhhhhhhhhhhh..."

Garai hartako oso oroitzapen onak dauzkat. Hitz aspertu luzeak egiten genituen, inoiz afariren bat ere bai. Lagunak genituen. Nire egitekoa haiek animatzea bazen ere, ni ne sentitzen nintzen animatuagoa eta indarberituagoa. Beraien asmoak eta kezak ezagutzeko aukera eskaintzen zidaten, herri bakoitzaren euskalgintzaren testigu eta mezulari baikenituen. Elkarren ezagutzak hurbildu egin gintuen.

Garai hartan Iparralde urrunegi gertatzen bazitzaigun ere, berri-maileen sare tinkoari esker, Hegoaldeko lurraldeak, herriak, jaiak, ohiturak, bizipozak eskura jartzen zizkiguten ia era anonimoan, isilean,

ezeren ordain-saririk gabe, musu truk. Haietariko asko joan zitzaizkigun. Bizi honetan jaso ez zuten esker ona orain gozatzen ari direlakoan nago. Hala bedi.

kronologia

90 urte begiratu batean



ZERUKO ARGIA

1919
Zeruko Argia euskarazko hilabetekari erlijiosoa sortu zuten Iruñean aita kaputxinoek, Buenaventura Oieregi eta Damaso Intzaren eraginpean. Urtarrilaren 1an kaleratu zen aurreko zenbakia.

ARGIA

1921
Elizgizonak eta laikoak biltzen zituen euskaltzale talde batek Argia astekaria sortu zuen Donostian, aurreko zenbakia apirilaren 24an kaleratuz, euskarazko irakurketa sustatzeko batik bat. Aurreko euskal hedabide modernotzat jo izan da gerrareko Argia hura.



GERRA ZIBILA

1936
Zeruko Argia eta Argia, biak isilarazi zituen uztailaren 18ko altxamendu militarrek. Uztailaren 19an 797. zenbakia kaleratuz itzali zen betiko Argia, Zeruko Argia ez bezala.

ZERUKO ARGIA zeruko argia ZERUKO ARGIA

1954 1959 1960

ZERUKO ARGIA

1963
Aurreko hamarkadan saio antzuren batzuk egin ondoren, bigarren aroari ekin zion Zeruko Argiak, erlijioaren babespean baina Argiaren hainbat ezaugarri bere eginik.

EUSKAL KAZETARITZAREN URTEA

ZERUKO ARGIA

1976
Urte hartan geldiezin zena Zeruko Argiaren aldaketa, edukietan zein itxuran. Egunkari itxura ematen zioten azalak alboratu eta magazin tankera hartu zuen. Koloretsua eta ausarta izan zen aurrerantzean Zeruko Argiaren aurpegia.



ARGIA

1980
Kaputxinoek Zeruko Argiaren jabetza astekaria egiten zutenen esku utzi zuten. Argia bilakatuta, kinka larrian ekin zion proiektu 'birfundatuak' gaurko errealitatearen zimenduak jarri zituen etapa berriari.



Egunkaria

1990
Argiaren bultzada ezinbestekoa izan zuen Euskaldunon Egunkariaren sorrerak hutsune garrantzak utzi zituen astekariaren erredakzioan. Egoera zail horretatik ere onik eta indarberrituta irten zen haatik.



1997
Goitik behera jantzi zen kolorez Argia, eta paperetik interneterako jauzia egin zuen. Euskarazko edukiak sarean jarri zituen bigarren hedabidea izan zen. T'tipi-T'tapak hartu zion aurrea, hilabete baten aldearekin.



Evo Morales

2006
Ametz Arzallusek eta Txomin Txuekak, Boliviara egindako bidaia batean, propio interneten jartzeko euskarazko aurreko bideoak egin zituzten. Haiekin hasi zuen Argiak egun apustu sendoa den multimediarako proiektioa.

Osipakizuna Kirsualetan



Argia

2009
90. urteurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatzeaz eta proiektuaren historia berreskuratzeaz gain, aldizkariaren diseinua eraberritu zen.

2010



Zenbat Gara
AMATIÑO

Zeruko Argia astekariaren Zenbat Gara atala 1972tik 1975era euskaraz idatzitako informazio-sailik irakurriena izan zen. Ia berrogei urte geroago, arrakastaren nondik norakoa laburbildu nahi izatekotan...

Lehen eta behingoz, informazio-ari lehenasuna eskaini zion, orduarte euskal prentsan nagusi ziren idazle, irakasle eta adituen iritzi-artikuluak kaltetan. Ez zuen informatuz entretenu baina beste xederik. Eta, segurutzat, gehien entretenu zena ni neu izan nintzen.

Asteroko sail finko eta informazio-hitzordua izan zen, irauan zuen artean sekula hutsik egiteke.

Jokamolde hura ere berria zen euskal aldizkari gintzan, ordainik gabeko lanetan ez baitzegoen inori asteroko konpromisorik eskatzerik.

Euskal Herri osoan gerta zitezkeen guztiaren berri eman nahi izan zuen eta, zer gerta ere, euskal galaxiaren topaleku bilakatu. Are gehiago kontuan izanik erdal komunikabideek ez zutela euskalgintzaz batere informatzen.

Informazio asko postaz zein telefonoz bildu arren, beste zenbait tokian-tokian jaso zen estreinako. Kazetaria kalera atera zen, herriz herri ibili, aurkezpenetara agertu, bere burua azaldu, aurpegia erakutsi, eskariak jaso, argazkiak atera, kritikak entzun, aurrez aurre kontu eman, etab.

Kazetari-estiloaren urratsak berreskuratu zituen, ehun urte lehenago Jean Hiriart Urrutik proposatutako dekalogoaren espirituaz jabetuz. Hau da, irakurle arrunta gogoan izanda idatzi eta ez idazlearen beraren uestezko jakituria eta goi-maila erakusteko.

Euskara batuaz bai, arau guztiak zorrotz asko kunplituaz, baina ahozkoaren ildotik, ahalik eta artezen eta errazen. Orduan indarrean zeuden modei muzin egin eta, itxuraz behintzat, batere literatura-senik gabe. Egilearen ezjakinez eta ezintasunez gehiago, nahita edo apropos baino.

Era bateko zein besteko informazio-iturri guztiak izan zuten tokirik bertan. Honek ez du esan gura erabateko neutraltasunik izan zenik. Koldo Mitxelena idatzi zidanez "denek bilatu ahal izan zaituzte, baina batzuek beste batzuek baino sarriago bilatu nahi izan zaituzte". Eta, haren uestez, ez ziren beretarrek sarrien bilatu nahi izan nindutenak.

Edozein modutan, albistekiko tartea gordetzen asmatu zuen, orduan nagusi ziren hil ala biziko transzendentalismoa eta fundamentalismoa alde batera utziz. Jarrera hau ere ez zen kontzientzia izan, arazo handirik gabe bizi zen familia oneko semeari zegokion giroaren isla baizik. Sailari zerion ironia azpimarratu zuen Joseba Intxaustik eta beste ezin euskal arlotan ez zegoen umorea sumatu zuen Joxe Azurmendik.



Ez lehenak, bai modernoak

Publizitatearen alorrean normaltasunetik urrun dago oraindik euskara, baina egin du bere bidetxea, eta euskarazko iragarkien nondik norakora hurbildu diren guztiak diote Argia izan dela horretan ere aitzindari.

- 1
Coca Cola
(1965)
- 2
La Fanderia
(1963)
- 3
Caja Laboral
(1977)
- 4
Galdona
(1969)
- 5
Insalus
(1969)
- 6
Byass 96
(1971)

Lehen euskarazko iragarkiak Argiaren aurrekoak dira: Estatu Batuetan XIX. mendean hondarrean argitaratu ziren 'Escualdun Gazeta' eta 'California' ko Eskual Herria' astekarietako orrialdeetan kokatu dituzte adituek. Nolanahi ere, euskal kazetaritzaren garai goiztiar haietan oso urria zen euskarazko publizitatea, ezdeusa kasik. Hortaz, publizitatea hedabideen izaera profesional eta modernoaren zantzu-tzat jotzen bada, Argia da horretan ere ezinbesteko erreferentzia. Koldo Izagirrek idatzi duenez, "euskarazko publizitatea prentsa modernoaren sorrerarekin dator, eta 'Eskualduna', 'Euskalzale' eta 'Ibaizabal' haiek apurka handituz joan ziren alorra aski bete ageri zaigu 1921az geroztik, Argia asterokoari esker".

Argiako iragarkiak ez ziren beraz lehenak izan, baina bai modernoak. Bost iragarkirekin abiatu zen publizitatea asterokoaren aurreneko zenbakian. "Euzkadi izena dun jaboya jjonena!! da" gogoratzen zuen batek, eta bestek Etxeberria ta Ureta teileategiko produk-

tuak, Loidi ta Zulaikaren ardoak eta Loidi eta Lagunak zurgintza-olako "alkiak, mayak eta oltxak" iragartzen zituzten, Librería Internacional-ek "Bonaparte Printzipiaren euskarazko liburua" eskaintzen zituela.

Apurka-apurka, mugarri modukoak jartzen joan zen Argia euskarazko publizitatearen garapenean, betiere garaiko dendari eta enpresaburu abertzaleen euskararen aldeko jarreraren eta euskara modernotasunera ekarri nahi zuen aldizkariaren izaeraren isla. Hasiara bateko soiltasun grafikoak ilustrazioek aberastu zuten, Jon Zabalo 'Txiki' marrazkilari handiaren eskutik besteak beste. Salgai zeuzkaten produktuen ezaugarriak aparteko handinahikeriarik gabe deskribatuz, haien egiazko edo uestezko abantaila izugarriak azpimarratzen jo zuten iragarleek, hainbat produktu mirarizkoak bailiran...

Gerraostean, Zeruko Argiak hartu zuen zeregin horretan ere Argiaren lekukoa. 1963ko uztaileko bazebilen airean Zeruko Argiako orrialdeetatik irratira

eta euskarazko publizitatearen historiari jauzi egin zuen "Ez merkenak, bai onenak!!" iragarkia, Fanderiko pentsuen abantailak argi eta garbi uzten zituena. Eusko labelik gabeko produktuak ere -Coca-Cola, Pepsi-Cola, Mirinda edo Byass 96, esaterakolaster hasi ziren euskaraz saltzeko zuen gaitasuna ustiatzen eta, 1976an Argiak errebista formatua hartzarekin bat, aukera estetiko berriak arakatzen hasi zen publizitatea. Adibide argienetakoa, mezua Lourdes Iriondo eta Xabier Leteren argazki ederraren eta produktarekin zerikusirik ez zeukan testu labur baten baitan utzi zuen Caja Laboral-eko orrialde beteko iragarkia...

Horrelaxe joan dira bata bestearen ondoan hazten euskarazko publizitatea eta Argia, elkarren beharraren jakitun. Publizitateak ez du aldizkaria ahaztu, are gutxiago aldizkariak publizitatea. Harreman estu horren eta euskarazko publizitatearen bilakaeraren lekuko da Argia Sarien baitan 1994. urteaz geroztik ematen den publizitate saria.

Hogeita hamar urte bere kabuz

Aurrekarietako zordun baina asmoak etorkizunean jarrita berrabiatu zen Argia 1980. urtean. Zeruko iraganen utzirik, lurreko estatusunei euren kabuz eman beharko zieten aurpegi aurrerantzean astekariaren ardura hartu zuten langileek. Azken hogeita hamar urteotan, lehendik zekarren eskolari jarraiki, bere proiektu propioa garatzeaz gain kontuan hartzeko moduko ekarpenak egin dizkio Argiak euskarazko kazetaritzari. Besteak beste, aitzindari eta neurri batean maisu izan da bide berriak urratzen, baita kazetari harrobi ere. Gogotik ordaindu izan ditu askotan horrelakoak, baina behin eta berriro aurkitu du berezkoa duen errailerako bidea.



Xabier Letona 2009ko Argia Sariatari.

Modemotasunaren gailurrean

Aspalditxo utzi zion Argiak aldizkari soil izateari, gehiengoak baino lehen txertatu baitzituen komunikazio proiektu berean papera eta internet bidezko aukerak. Euskarazko komunikazioa ikuspegi aurrerakoi, burujabe eta independentez garatzen jarraitzeko baliabide osagarritzat ditu bi-biak Xabier Letona zuzendariak.

Orain arteko ibilbide luzean, zein puntutan ikusten duzu 2010.eko Argia? Modernotasunaren gailurrean ikusten dut, eta ez da harrokeria. Paperetik abiatutako proiektu bat multimedia proiektu bihurtu da dagoeneko. Oraindik sustraia papera bada ere, sustrai horretatik beste adar batzuk ari dira sortzen.

Adar horiek guztiek gerizpetzen dute aldizkariak harago doan Argiaren komunikazio proiektua? Gaur egungo gizartearen zutabe bakarrak, paperak, ez du komunikazio proiektu bat asebetetzen, ez behintzat gurea. Azken hamar urteetan internetek bizitzaren maila guztietara ekarri du iraultza, areago informazioaren eta komunikazioaren mundura, non kolokan jarri dituen iraganeko zutabe nagusiak. Guk 1997an egin genuen interneten aldeko apustua, sarean euskarazko edukiak jartzen aurrenekoetakoak izan ginen. 2001-2002 urteetan sekulako zuloa eragin zigun internetek. Bertan behera uztea ere pentsatu

genuen, baina oso hausnarketa serioa egin ondoren ikusi genuen etorkizuneko komunikazio proiektua izan nahi bagenuen ezinezkoa zela internet gabe aritzea. Horretan jarraitu dugu, kosta ahala kosta. Aldizkariaren bidez informazio sakon eta landua eskaintzen dugu, hori baita gure ezaugarria, eta internetek du egunerokotasunaren erronka. Horrez gain, interneteko

"Papera eta internet uztertuz, inoiz izan duen zabalkunderik handiena du gaur egun Argiak"

leihoak beste bista batzuk zabaldu dizkigu. Aldizkariaren irakurlea profil oso altukoa da ikerketa guztien arabera; argia.com-era datorren jendea beste era batekoa da. Alde horretatik, zabaldu eta dibertsifikatu egin da publikoa, eta horrek dakar seguruenik Argiak inoiz izan duen zabalkunderik handiena izatea. Baliabide osagarriak dira papera eta internet, ezaugarri propioak dituztenak, baina betiere Argiaren funtsezko nortasunari eusten diote.

Laburbilduko zenituzke funtsezko nortasun horren ezaugarriak lau hitzetan? Lehenbizikoa, ezinbestean, euskarazko komunikazioa egitea. Horrek lotzen gaitu azken batean bai Argia egiten zutenekin, bai Damaso Intzak buruan zeukanarekin. Beste bi ardatz funtsezko dira euskara eta euskal kulturaren zabalkunde lana egitea eta ikuspegi aurrerakoa izatea gizartearen posizionatzeko orduan. Laugarrena, dudarik gabe, Euskal Herriaren eta euskal gizartearen ikuspegi burujabea. Eta hori guztia gure proiektuaren ezaugarri nagusiak diren independentzia eta autonomian oinarrituta.

Independentzia, ez bakarrik hitzekoa. Ez, hor sortu dira 1984 urteaz geroztik hainbat enpresa Argiari sostengu bat emateko eta ahalik eta biziraupen tresna gehienak bildu ditzen, badakigulako nolabaiten independentzia ekonomikorik gabe ez dagoela proiektu autonomorik. Eta gaur egun dugun autonomia maila goren horren ezaugarria ez da bakarrik dirua, baizik eta jabetza: Argiaren %70 langileon esku dagoenez, langileok erabakitzen dugu. Askatasun hori oso garrantzitsua da gure buruaren jabe izateko, nahiz eta askotan garesti ordaindu dugun, alde guztietatik eman baitigitu egorra.



Zerukoren katebegia
ELIXABETE GARMENDIA LASA

"Los del Zeruko" -edo segurasko, sarriagotan, "las del Zeruko"- ginen Donostiako Parte Zaharrean. Esaterak badu irakurketa soziolinguistikoa -zein zen hizkuntza nagusia- eta baita soziologikoa ere -emakumezkoak ginen etxekoandre aldizkarian-. Baina horiek alde batera utzi eta ekar dezagun gogora Parte Zaharra zela orduan gazte pauso gehienek helmuga iluntzeetan, lagunartea, bohemia eta golferia eskaintzeaz gain, hiriko azken albisteak jakiteko toki aparta eta borrokaleku ez beti ekaitzez bete. Eta han, Zerukoak nor ginen talde gisa, nahiz eta identifikatzen gintuen haietako askok nekez irakurriko zuten asteroko gure jarduna.

1976-1981 urteen artean zen hori, bost urte besterik ez kronologikoki, askoz gehiago irudipenarentzat, izan ere, Franco hil berri hartako loraldian, askatasun egarriak ia dena posible zen lilura marrazten zuen. "Irakinaldi handiko garai gisa gogoratzen ditut urte haiek -Josu Landaren hitzetan- baina hori ez zen bakarrik gertatu euskal prentsan, gizarte osoan gertatzen zen". Eta Zerukoak beldurrik ez sutara arrimatu eta lapikoa borborka jartzeko.

Izena desakralizatze aldera edo, hurbildu ziren Okendo 22ra luma zorrotzenak eta arkatzik ausartenak, eta bihurtu zen aldizkaria "euskaltzale askoren halako refugium peccatorum", Joxan Elosegik idatzi zuenez. Kazetari ginen ordea, oinarrian, Zeruko Argia kudeatzen genuenok, euskarazko kazetaritza homologagarri eta noranahikoa egin nahi genuen gainera; lehen iladako fronte zalapartatsuetatik aparte -betiereko politika, gatazka sozialak- gizarte bizitzen ari zen gertakari pausatua goie ere so egiten genien, adibidez *footing* izenaz etorri zitzaigun korri egiteko modari, sagardotegiak kaletarrez betetzeko fenomenoari edo sukaldaritza berria deitu zitzaionari. Baina ez genuen asmatu edo mahatsa berdegia zegoen, kontua da ez genuela lortu joera berriarengatik uxatuko harpidedunen kopurua berdintzerik, eta utzi genuen txalupa hondoratze zorian, frakasoaren zapora mikatza erraetan.

Lehentxo gertatu zen Zeruko erantzitza eta kaputxinoen gonapetik ateratzea; horri esker Argia hutsak bat egin zuen bere aitzindari naturalarekin, 1920ko hamarkadatik zeterren izen bereko astekariaren tradizioarekin. Horregatik, Damaso Intzak sortutako Zerukoaz gain, geroxeago jaio zen Argia laikoago hura ere sartzen da laurogeita hamaika urteotako historian.

Kate horretan suertatutako katebegia bakana eta berezia begitantzen zaio bati, eta hala gertatuko zaio bakoitzari bere garaiarekin. Eta aldi berean, laurogeita hamaika urteko perspektiba hartu eta jabetzen da bat nola katebegi bakoitza ezberdina izan arren -ez trokelekoa- nabardurak besterik ez diren kolore, forma eta ezaugarri ezberdinak.



Gogoz eta komentzimenduz egina

1, 2, 3
www.argia.com
webguneko irudiak



1 Paperean labur edo luze jarduteko, bloggerako, bideo baterako, 'tuiteatzeko'... Balio-anitzak dira Argiako kazetariak sortzen dituzten edukiak, finean kazetariak eta edukiak osatzen dutelako, euskarriak euskarri, funtsezko bikotea.

Azken urteotan, paperezko unibertso analogikoan sortutako hedabide guztien buruhauste nagusia da mundu digitalarekin harreman onuratsuak finkatzen asmatzea. Bi mundu horien arteko zubiak luzatzen aitzindaria izan zen Argiak hamahiru urte daramatza ahaleginean, eta badu bere formula, 'etxeko' lan estilo bereziarekin eta kazetaritzaren ikuspegi zehatzarekin zerikusi zuzena duena. Eta emaitza ez da kaskarra, paperezko astekariak dituen harpidedunen kopurura hurbiltzen ari baita egunero argia.com-era sartu-irtena egiten dutenena, 4.800-5.000 inguru horretan dagoena. Eta egonaldi luzetxoak egiten dituzte gunean, 50.000 orrialde zerbitzatzen baitzaizkie batez beste egunero, iaz baino 20.000 gehiago.

aberatsagoa, kanpoko edukiak ez ezik propioak ere biltzen dituena. Esaterako, iaz, Bertsoari Txapelketa Nagusia zela eta, Argia eta Info7ren arteko elkarlanetik sortu zen 'Hitzetik Hultzera' weberrako telebista saioa. Udazkenean ikusiko omen dugu saio umoretsu haren gisako produktu berriren bat...

Erabateko integrazioa

Badira paperezkoaren eta sarekoaren dibortzioan oinarritzen diren estrategiak. Oso bestelakoa da Argiarena, euskarri guztien arteko integrazioan baitu funtsa. Kazetarien ekarpen eta irizpideak dira Argian lehengai informatibo nagusia. Izan ere, langileak enpresaren jabe izateak -bazkidetza egitea boluntarioa izanik, gaur egun 24 langiletik 20 dira bazkide- ahalbidetzen du kazetariaren autonomia hori. "Egiten dugunaren %99,9 egiten dugu gogoz eta komentzimenduz", diote erredakzioan. Horrez gain, euren denboraren jabe eta erantzule izanik, behar duten astia hartzen dute gaiak lantzeko. Hilabeteak behar badira, hilabeteak. Garai batean, unerik gogorrenetan, betetzea zen kontua. Gaur egun, barne sendotasun eta eskarmentu handiko lantaldea



2 Guztizkoaren herena-edo izan arren, oraindik ere astekaritik eratorritako edukiek bereganatzen dute gehien-goaren arreta interneten. Besteak beste, hemerrotekak, gainerako edukiak bezala Argiak erabiltzaileen esku doan jartzen duen erabateko altxorak. Gero eta gehiago dira, ordea, interneteko propio sortutako edukiak, hala nola blogak, gaikako kanalak edota multimediari eskainitako atal gero eta



Gazitik gozotik baino gehiago izan du beti Argiaren historiak. Laurogeita hamargarren hamarraldian heldu gineno dagokigunez behintzat, borroka gordinetan zaildutakoak gara esan liteke. Hogei urte eskas, ezertan esperientziarik apenas ez, eta grafikagintzari heldu behar izan genion lehenik. Prentsa idatzia gauzatzeko behar diren pauso guztiak kontrolatzea zen plana. Berriak jaso, artikulatuak idatzi, ilustratu, asteroko zenbakia osatu eta alea etxera heltzen den arte, aldizkariari dagokion prozesu osoa kontrolatzea. Bidena-bar, gainera, instituzioetatik heltzen ez zen laguntza enpresa babesleak sortuz lortuko genuelakoan ginen. Halaxe sortu zen Antza inprimategia eta halaxe ikasi genuen

batzuek gure ikasketekin zerikusirik ez zuen diseinatzailearen ofizioa: arian-arian eta presaka, beharrak bortxatuta, oker egindakoak eta hanka sartzeak garesti ordaintzen diren medio batean. Eta, bitxia egiten da gaur, irabazi oso urriko lanpostua baino gehiago, misio garrantzitsua genuela iruditzen zitzaion bertan aritu ginen askotxori: euskal prentsa independentea, kulturari bereziki atxikia, lurraldetasuna ezinbesteko ezaugarritzat hartuko zuena, maila gorenera jasotzea. Sinesmen giro horretan heldu zitzaion handik gutxira egunkariaren proiektuari, eta dena emanda jardun ere bolada batez, harik eta *Euskaldunon Egunkaria* plazaratzen hasi zen arte. Orduantxe hasi ziren benetako komeriak Argian gelditu

ginenontzat. Lan-taldea erabat urrituta, indarrak aurreko proiektuetan akituta, eta zailena egitekoak ginen oraindik. Berrito koadrilatxoa osatu, eta jatorria, nortasuna eta ezaugarriak galdu gabe, aurrerantzean bete beharke zuen espazioa deskubritu beharra zeukan Argiak; Euskarazko egunkaririk ere badenean, euskal prentsa nazional eta independentaren marka beste maila batera egokitu; 'Etiketa' berriak asmatu eta beharra sortu. Ez naiz orduko historia debalde samurtzen hasiko: bazter guztietatik jaso genuen egurra. Ezker-eskuin. Galetan funtsa galdu genuela, kalitateak behera egin zuela, dagoeneko tokirik ez genuela, bestearen igandetako gehigarri bihurtu beharke

genukeela, gorrientzat beltz eta beltzentzat gorri ginela... Epelak eta bost entzun genituen hainbat urtez. Eskarmentu hura ere pasatu behar izan zuen Argiak, hautsi dituen moldeak hausteko, heldu den tokira heltzeko. Pena bakarra, bidean kixkali den jendea. Jende mordoia.



Muturreko sentsazioak
GARBIÑE UBEDA GOIKOETXEA

1
Argiaren 2.000.
zenbakiaren
azala
(2005)

2
Argiaren
egungo
diseinua duen
azala
(2008)



oinarri hartuta, hori ez da inondik ere nahikoa. Kazetari bakoitzak du bere grina eta zaletasunak garatzeko aukera, eta ezohiko balio erantsi hori islatzen da lanaren emaitzan, igartzen du irakurleak.

Beste kontu bat da gero nola administratu lehengai hori, zer bilakatu elkarrizketa, zer aldizkarirako erreportaje luze, zer Larrunerako gai monografiko, zer blogerako burutazio edo facebook-erako iruzkin...

Euskarri bakoitzak du noski berri-azko funtzioa. Bistako muga fisikoak dituen paperak hautaketa zorrotza egitera behartzen du, baina, horren truke-edo, gaiak patxadaz lantzeko eta irakurtzeko beta eskaintzen du. "Patxada eta selekzioa" da hortaz papera, Argia euskarazko komunikabideen unibertsoan betetzen duen funtzioa -sakontasunarena alegia- betetzen jarraitzeko baliabidea. Eta gairen batek garapen zabalagoa behar badu, hortik sor daiteke Larrun hila-betekariaren zenbaki bat... Internet, berriz, egunerokotasunaren zurrumbiloba da, beste mundu batzuetara zabaltzeko aukera, espresio bide berriak lantzeko abagunea...

Mugarik eta konplexurik gabe

Kolaboratzaileak beti izan dira oso garrantzitsuak Argiarentzat eta, horien profila zertxobait aldatu bada ere, ezinbesteko pieza izaten jarraitzen dute. Era askotako euskarriak -astekaria, argia.com, Larrun, Urtekaria... - baliatuz hedatzen diren

edukien zatirik handiena haatik dozena bat lagunek baino osatzen ez duten erredakzioak ekoizten du. Sekretua? Malgutasuna, informazioaren berrerabilpen eredugarria eta, batez ere, "independentzia astero ikusten da" Argiaren goiburuak adierazten duen kazetaritzaren aldarrikapena.

Gaien eta planteamenduen aldetik, gizartearekin batera aldatu da Argia. Konplexu asko galdu ditu bidean, eta horren lekuko da gaur egun duen egitura aske eta malgua, sail itxien eta neurritz kanpoko txokokeriaren murruntzatik libre. "Muga horiek guztiak puskatu egin ditugu", diote, azpimarratuz politikaz eta kulturaz gain badirela horiek adina, edo gehiago, lantzen dituzten gaiak, lantaldeak partekatzen duen gizarte ikuspegiari lotuak. Ahal dela, "kritika hutsean gelditu beharrean, esperientzia eta adibide positiboak aurkeztuz". Mundura begira jartzean, hizkuntza gutxitu bateko hedabidea izateak hainbatengan eragin dituen konplexuak ere erabat gaindituztat jotzen dituzte. "Saiatzea debalde da", diote. Eta debalde izateaz gain, askotan ondo ateratzen dira saioak.

Papera "patxada eta hautaketa" da. Sarea, berriz, egunerokoaren zurrumbiloba.

Garrantzia lehengaiak du, informazioak. Kazetariak erabakitzen dute nola banatu euskarri desberdinen artean.



PENTSAMENDUARI ESKAINITAKO TALAIA

Argia eskuratzen dutenek badakite hilabete bakoitzeko azken astean astekaria ez dela bakarrik iristen, 'Larrun' duela lagun, pentsamenduari eskainitako 16 orrialdeko talaia, euskarazko komunikabiden kioskoan mota horretako bakarra. Gaien aldetik askotarikoa, 1985ean sortu zen, produktu independente gisa. Bederatzi urte eman zituen bere kabuz banatzen, harik eta 1995etik 1999ra bitartean luzatu zen makal-aldiai jo zuen arte. 1999 urteaz geroztik Argia astekariarekin batera banatzen da.



URTEEN ETA EGUNEN HARIA

Astea da Argiaren denbora-unitate nagusia, baina beste batzuk ere menderatzen ditu. Esaterako, urtea. Iaz bete zituen hain zuzen 25 urte Argiaren Urtekariak, euskal kulturaren mende laurdeneko kronika eta memoria bilakaturik. Eguna ere ez zaie arrotza 1992an aurreneko egutegi takoa argitaratu zutenetik. Arantzazukoa zen orduan euskarazko eskaintza ia bakarra, eta haren bertsio laiko eta moderno halako bat ekarri zuen Argiarenak. Orduz geroztik makina bat etxe, ikastetxe eta lantokitan ikusi dute nola zedarritu duten denbora -egunak joan, egunak etorri-, 2005.ean eraberritu zuten egutegi praktikoaren orriek.



Faroa
XABIER LETONA

Gure aldizkaria denboraren makina moduan irudikatzen nuela nioen Victoria Eugenia Argiaren 90. urteurreneko ekitaldi nagusi-koak txunditu ninduela: "Ehunka sinadura, milaka orrialde, artikulu, titulu, sarrera... milioika hizki... kontaezin ahalegin 1919tik gaurdaino jario geldoan". Eta hunkigarria zela nioen. Badakigu nondik gatozen eta nora goazen, aritza besterik ez dugu behar eta ari gara.

Mende hasierako Kaputxino haiek zuten euskaraz komunikatzearen beharretik gatoz, hori da Zeruko Argiarekiko zilbor hestea eta horrekin jarraitzen dugu aurrera 90 urte geroago, gustura, grinatsu, bizi-bizi, eta Damaso Intzak berak zioen moduan, setoso ere bai.

Ibilbide horretan papera ez da nahikoa jadanik, Internetek komunikazio osoa eskatzen du, egunerokoa, multimedia, telebista... XXI. mendeko komunikazioari erantzungo diona. Kriaren haizetea bizi dugu prentsaren munduan, eta ihi dakusagu gure burua. Komunikazioaren erraldien aurrean txiki, baina sendo; eusten bai, baina handitzen ere bai. Argiak, paperean eta interneten, bere historian izan duen jarraitzaile kopuru handiena du egun.

Kazetaritza kritikoa da gurea, eta gure irakurleak maite du hori. Jantzia, ingurua eta mundua hobeto ulertzen laguntzen duena. Modako arintasunaren aurrean sakontasuna da gurea. Hizkuntza batek, hiztun komunitateak, biak behar ditu, arina eta sakona, bigarrenaren aldekoa da gure

hautua. Funtsean, uste dut nagusiki horregatik bizi garela oraindik eta, jakina, euskararen muinean bizi den gure irakurle horrek ere hala gura duelako. Bardoak dioen gisan "euskaratik eta euskaraz".

Ez zaigu asko falta mendea egiteko, zortzi urte pasatxo. Mendea! Eta 2019ko horretan gustura kontatuko nuke urte horretan Euskal Herriko akordio politikoaren 5. urteurrena ospatzen dugula, gatazkak badituela arantzak oraindik, baina nagusiki iraganeko kontua dela. A!, eta azkenean baietz, herritarrek erabakiko dutela adostu dela.

Gustatuko litzaidake idaztea euskararen erabilerak hamar puntu egin duela gora euskal gizarteak; asko falta dela, baina euskaraz bizitzeko aukerak gero eta zabalagoak direla. Munduan

lehentasunak aldatzen ari direla eta garai bateko finantza-ekonomia-gizartea-planeta (Susan George) aginte eskemaren ordena aldatu dela; orain planeta-gizartea-ekonomia-finantza ordena berriak gidatzen duela mundua.

Ametsak? Bai eta ez, ziur nago horietako batzuk kontatuko ditugula Argiako hainbat euskarritan. Beste batzuk faroa dira, eta porturako sarrera erakusten digute. Eskerrik asko eta zorionak lehengo arraunlariei, animoak gaurkoentzat.

Argitaratzailea Andoaingo Udala: Euskara Lansaila · Goikoplaza z/g · 20140 · Andoain · 943 300 830
Testuak Nerea Azurmendi **Kolaboratzaileak** Miren Jone Azurza · Mikel Ugalde · Amatiño · Elixabete Garmendia · Garbiñe Ubeda · Xabier Letona **Diseinua** Aner Hernandez

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA 2010 OHOREZKO AIPAMENA



Epaimahaiaren erabakia

Horra zer dioten hitzez hitz Sariaren oinarriek: "euskal kazetaritzaren historian ezinbesteko erreferentzia izan diren erakunde, ekimen eta pertsonen Ohorezko Aipamena egiteko aukera aitortzen zaio epaimahaiari". Ezin esan lan neketsua izan denik, erraza baizik, oinarriek ezarritako hesimugetan aurtengo Ohorezko Aipamena erabakitzea.

Argia izango da XXII Rikardo Arregi Kazetaritza Sariako Ohorezko Aipamena jasoko duena.

Arazoi asko metatu ditu Epaimahaiak Argia aldizkaria Ohorezko Aipamenaren jabe egitearen alde, eta ondorengoak azpimarratzea erabaki du:

> 90 urte bete ditu iaz, 2009an. **Argia** edo/eta bere garaian bere arbaso **Zeruko Argia** izan da, edo are hobeto esanda garaian garaiko **Zeruko Argiak** izan dira, euskal kazetaritzaren kabi iraunkorra, kabi gazia batzuetan eta gozoa beste batzuetan, euskal kulturaren eta euskalgintzaren gazi-gezen erakusleho beti, eta euskal hiztunei informazio askotarikoa euskaraz eskura jarri diena, 90 urtez. Argia, eta bere garaian Zeruko Argia, izan da euskarazko kazetaritzari ia mende batez bizirik eutsi dion hedabide bakarra.

> 1919tik 2009ra, 90 urte luze eta oparo, asko eta asko zailtasunez beteak. Xabier Letona zuzendari duen gaurko **Argiak**, 1919an du abiapuntua. Eta abiapuntuaz hitz egiterakoan, edo geroagoko urteez jarduterakoan, nahitaezkoa da Kaputxinoak, Damaso Intza, Agustin Ezeiza edo Nemesio Etxaniz aipatzea, nahitaezkoa den bezala Rikardo Arregi aipatzea, hark

ere Zeruko Argiaren eskutik gizarteratu baitzuen bere kazetaritza-lan oparoaren zatirik handiena. Ezinbestekoa da, halaber, Miren Jone Azurza eta bere ondoko Mikel Atxaga ere gogora ekartzea, beste askoren artean eta beste askoren ordezkari gisa. Euskal prentsan iritzia nagusi zenean, informazioari atea irekitzen asmatu zuten, baita, gorabehera istilutsuen erdian, euskara biziberritzeko hil edo bizikoa zen euskara batuari kabia egiten ere.

> Iraunkorra izan da, etengabe jakin izan duelako aldatzen, inguruabar, premia eta garai berrietara egokitzeko aldatzen, hain zuzen ere.

> Historikoa eta aurrerazalea izan da, eta da, bere baitara kuku eginez gero, euskal kazetaritzaren historiaren oso zati handia ezagutu litekeelako. Bere bilakaerari erreparatzea aski da horretarako, bere alderdi on eta txar guztiekin. Eta aurrerazalea izan da,

eta da, ahalegina egin duelako ataka zailetatik atereaz gisa guztietako berrikuntzetara egokitzen: hala pentsamendu eta joera berrikuntzetara, nola kazetaritzaren hizkera eta eduki berrietara ere. Behin eta berriro aitzindari izan da, eta hala izaten jarraitzen du, berrikuntza horietan, esaterako Internet sareko ekoizpenera jauzi eginez nabarmen azaldu zuten gisan.

> Harrobi izan da, euskal kazetaritzaren harrobi oparoa urte askoan.

Euskarazko kazetaritzan bidegile eta biderakusle izan den **Argia** zaharrari, Zeruko Argia aspaldikoari, astekari zaharberrituari, asteroko aldizkari berri eta berritua den **Argiari**, beraz, Ohorezko Aipamena.

EPAIMAHAIKIDEAK



Estanis Amutxastegi

Arantxa Urretabizkaia

Alazne Aiestaran

Joxe Rojas

Allande Boutin

Odile Kruzeta

Patxi Baztarrika



XXII. **RIKARDO ARREGI** KAZETARITZA SARIA



Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza